

KIMU

2018-2019

Haur eta gazte publikoari zuzendutako arte eszenikoen formakuntza

NEREA GORRITI

AURKIBIDEA

1. KIMU AURRETIK

2. JAIALDIAK

- Momix
- Teatralia
- Assitej Artistic Gathering

3. FORMAKUNTZA

- Création de marionette portées
- Familie Flöz Summer Akademie

4. IKERLANA

- Hausnarketak
- Zergaitik ibilbide hau?
- Proiektua

1.KIMU AURRETIK

Nire bizitzan bi bokazio nabarmendu dira: antzerkia eta irakaskuntza. Betidanik izan dut hezkuntza eta artearekiko interesa. Izan ere, Madrilgo Resad-en lizentziatu aurretik, magisteritza ikasi nuen Atzerriko Hizkuntza berezitasunean.

Bai irakaskuntza eta bai antzerkia nire ibilbide profesional guztian zehar nahastu egin dira. Alde batetik antzerki eta kantu irakaslea naizelako, eta bestetik, haur eta gazteentzat zuzenduta dauden hainbat proiektutan lan egin dudalako.

Antzerkiari dagokionez, Korri, Xalto eta Brinko pailazoekin hasi nintzen “Artista bat naiz ni” eta “Show berria prestatzen” antzezlanekin. Madrilen, Producciones Cuatro y Cuarto-ren “Los Sin Miedo: La casa de los esqueletos asustados” bai Fígaro, bai Cofidis Alcazar antzokietan antzeztu genuen bi denboraldiz. La Barbuda Teatro-rekin berriz, antzerkia eskoletara eraman genuen antzokietaz gain, eta beraiekin “Los Cocilocos”, “Cortex”, eta “SuperReciclown” antzezlanetan egin dut lan. Eta La Tregua Teatro antzerki taldearekin “El perro del hortelano” bezelako klasikoak institutoetara eraman genituen, eta emanaldien ostean obrari buruzko solasaldiak egiten genituen.

Telebistari dagokionez, ETB-ko “Go!azen 4.0” telesailean eta “Bagolaz” programan parte hartu dut.

Gaur egun, Xake Produzioak sortutako “Lur” antzezlanarekin, bidai zoragarri bat egiten ari gara Euskal Herriko antzoki guztietatik.

Kimu deialdiari buruz, Barbara Rivas aktorearen bidez jakin nuen. Aspalditik genuen biok proiektu bat sortzeko gogoia. Bera, 2017-2018ko Kimu deialdian partu hartu zuen. Eta hor hasi zen hain zuzen ere, bere, nire, gure ibilbidea. Gure sorkuntzaren hazia.

2. JAIALDIAK

MOMIX

28th Festival International jeune public 2019

Kingersheim

Otsailaren 1etik 4ra

Ikusitako antzezlanak:

I.GLU- Collectif a.a.O. - Dantza eta arte bisualak +3 urte / 50'

<https://vimeo.com/241018642>

Vilain!- Théâtre à cru - Antzerkia, musika eta diseinua + 8 urte / 1h05

<https://www.theatreacru.org/spectacles/vilain/>

Trois petites soeurs- Cie Le Carrousel - Antzerkia + 8 urte / 1h

<https://vimeo.com/198695838>

Wonderland, une histoire d'Alice et d'exil- Cie Une Chateau en Espagne- Antzerki musikala +13 urte/ 1h30

<https://vimeo.com/243612816>

Terres invisibles- Cie Livsmedlet- Objektuen antzerkia +14urte/ 55'

<https://www.theatre-contemporain.net/video/Invisible-Lands>

Une balade sans chaussettes- Cie Elefanto- Antzerki eta zirkua + 4 urte/ 40'

<https://www.youtube.com/watch?v=AcDQarcU3W0>

Piletta Remix- Le Collectif Wow- Irrati fikzioa zuzenean +7 urte/ 50'

<https://www.youtube.com/watch?v=UdtWxa0UzSY>

L'envol - Cie Nokill - Antzerkia +7 urte / 1h

<https://www.youtube.com/watch?v=H1upR0cyMcM>

La guerre des buissons- Theatre des 4 mains- Txotxongiloak +7 urte / 1h

<https://vimeo.com/246655086>

Burning (je ne mourus pas...)- L'Habeas Corpus Compagnie - Antzerkia +14 urte / 1h

<https://vimeo.com/279075236>



“VILAIN!”

TEATRALIA

XXIII Festival Internacional de Artes Escénicas para Niños y Jóvenes

Madrid

Martxoak 17 eta 24

Ikusitako antzezlanak:

Mi padre es un ogro - Antzerkia

<https://youtu.be/ngEGZBng5MA>

Estrella - Marie de Jongh- Antzerkia maskarekin


https://youtu.be/LO_L5Dg-RYU

Soy un niño -Antzerkia

https://youtu.be/bdv_MXo9-Ts

El viaje de Ulises - Antzerkia

<https://youtu.be/KKFDLeqwl5k>



“ESTRELLA”

ASSITEJ ARTISTIC GATHERING

International Association of Theatre for Children and Young People

Kristiansand

Irailaren 2tik-6ra

Ikusitako antzezlanak:

Stalooe (To fight a Giant) - Åarjelhsaemien Teatere - Antzerkia txotxongiloekin - 4-10 urte

Myriads of Worlds - The Swedish Royal Opera - Antzerki sensoriala 3-18 hilabete

<https://youtu.be/QJyK1-vN7o4>

Rita - Tuning People & BRONKS- Antzerkia + 8 urte

<https://youtu.be/Wg6Le7SqeAc>

Garage - Cirka Teater- Antzerkia + 8 urte

<https://youtu.be/9Z0uStRXjPk>

Baba Yaga - Windmill Theatre- Antzerkia 7-12 urte

<https://youtu.be/JQWsN7y7m14>

A-I-U - Greenland National Theatre - Antzerkia 4-8 urte

Persona - Kuressaare City Theater - Antzerkia maskararekin +14

Leap of Faith (for I survived) - Pantomimteatern - Antzerki gestuala +10 urte

<https://youtu.be/b062AZGnEIM>

Stork's Gift -Table Theatre- Objektu eta txotxongilo antzerkia 7-12 urte

Tiger Tale - Barrowland Ballet - Dantza 7-14 urte

<https://youtu.be/XfFm-RAfFkA>



“BABA YAGA”

Hitzaldiak:

- *Sensory Performance Practice: Where we are and where We're not.*

Dalija Acin Thelander eta Ellie Griffiths-ek bere esperientzia kontatu ziguten zentzumen antzerkiaren inguruan.

Dalija, antzerki zuzendari eta koreografoa da. Dantza eta mugimendua erabiltzen du bere antzezlanetan. 2008tik haurrentzat zuzenduta dagoen dantza garaikidearen alorraren barruan ikertzen ari da. Bere azken lanak 3 eta 18 hilabete bitarteko haurrei zuzendutako antzezlan sentsorialak dira.

Ellie Griffiths-ek berriz, zentzumenak garatzeko antzezlanak egiten ditu autismoa edo desgaitasunak dituzten haurrekin eta baita haurrentzat ere. Oily Cart Theater antzerki taldearen zuzendari artistikoa da, antzerki mota honen aintzindarietako bat. Publiko anitz batentzat zuzenduta dagoen proiektuen sorkuntza eta ikerketa lanetan murgilduta dago.

Antzerki sentsoriala, hitzak dioen bezela, zentzumenak pizten eta garatzen dituen antzerki mota bat da. Beraien hitzetan, erabiltzen dituzten espazioek mugimendua dute, eta eraldatzen dijoaz emanaldi guztian zehar. Bai jantziek eta bai eszenografiak testura eta bolumen ezberdinak izaten dituzte. Objektuak, argiak, soinuak, usainak... guztiak dira antzezlanaren parte.

Baina ezin daiteke antzerki sentsorialaz hitz egin publikoaz hitz egin gabe. Izan ere, elkarrizketa bat sortzen da publikoaren eta antzezlearen artean. Ikuslea antzezlanaren partaide aktiboa baita.

Emozioak ongietorriak dira eta hurrak libre dira mugitzeko, objektuak hartzeko, etab. Gurasoak edo irakasleak bidai honen laguntzaile izango dira. Beraien jarrera oso baliagarria eta garrantzitsua izango da hurraren esperientzian.

Ikastaroak:

- *Movement.* Gorputz adierazpenerako jolas eta ariketa ezberdinak egin genituen.

FESTIBALETATIK KANPO IKUSITAKO EMANALDIAK

Solitudes

<https://youtu.be/uXkP0CHupTk>

Martinaren parke fantastikoa

https://youtu.be/_gS3SRLHyb8



“SOLITUDES”

3. FORMAKUNTZA

CRÉATION DE MARIONNETTE PORTÉES - NATASHA BELOVA


Bruselas

Maiatzaren 6tik-17ra

Ikastaroa:

Tamaina handiko txotxongilo baten eraikuntza. Manipulatzaillearen gorputzak, txotxongiloaren gorputzarekin bat egingo du. Izan ere, manipulatzaillearen hankak txotxongiloarenak izango dira.

Nola egiten da: Txotxongiloaren burua buztinean modelatuko da, baita esku bat ere. Ondoren, termoplastikarekin estaltzen dira, eta beroa erabiliz aurpegiaren eta eskuaren detaile guztiak egingo dira. Bularra eta besoak egiteko, ordea, bitsa erabiliko da.



BOZETUAK

Programa:

- Testu edo gai batetik abiatuta, inspirazio iturri gisa irudi batzuk aukeratu genituen, eta baita hausnarketa batzuk ere, pixkanaka-pixkanaka, sortu behar genuen izaki edo pertsonaira hurbiltzeko. Ondoren, argazkiz, postalez, marrazkiz, esaldiz eta abarrez osatutako paleta bisuala eraiki genuen. Sortutako unibertso edo atmosfera honek, gure

irudimena piztu zuen eta erabakiak hartzen lagundu zigun gure txotxongiloa eraikitzerako orduan.

- *Forma eta eraikuntza egokiaren aukeraketa:* Txotxongiloa eraikitzeko oso garrantzitsuak diren erabakiak hartu behar dira: material desberdinen erabilera, txotxongiloaren tamaina, nolakoa izango den manipulazio teknika, etab. Erabaki hauek txotxongiloa definitzen dute. Orokorrean era praktiko batean aurkitzen dira gauzak. Saiatuz. Ezinbestekoa da txotxongiloari “bizitza” ematean, era organiko batean egitea, sinesgarriagoa izan dadin. Hau da, giza gorputzean fijatu behar gara. Hala ere, gure esku zegoen errealitatea errespetatzea edo ez. Errealaren imitazioa, transposizioa, deformazioa... dena zen posible.



THERMOPLASTIC

- *Jantziak:* Ezin da txotxongilo bat mozorroekin jantzi. Bere estetika errespetatu behar da: materialen kalitateak, koloreak, jantziaren kontrasteak funtzio garrantzitsua dute ikusleen arreta orientatzeko. Txotxongiloaren eta manipulatzailearen arteko batura sinesgarria izan dadin teknika desberdinak ere ikasi genituen.

- *Manipulazioa*: Bai Natashak tailerrera eramán zituen txotxongiloak erabiliz eta baita gure lan saioetan sortutakoekin, manipulatzeko teknika ezberdinak esperimentatzeko aukera izan genuen. Musika eta erritmoa erabiliz, hainbat ariketa egin genituen, eta kalera atera ginen txotxongiloekin.



MANIPULAZIO TEKNIKA

FAMILIE FLÖZ SUMMER AKADEMIE

Irakasleak

- Michael Voguel: Familie Flöz konpainiaren produkzio zuzendari eta zuzendari artistikoa.
- Hajo Schüller: Familie Flöz konpainiaren maskara sortzaile eta zuzendari artistikoa.
- Anna Kisstel: Familie Flöz konpainiaren aktorea eta autorea.
- Valentina Bordenave: Dantzari, autore, koreografa eta mugimendu eta Alexander Teknikaren irakaslea.

Ikastaroa

San Giusto

Uztailaren 21etik, Abuztuaren 3ra

Familie Flöz konpainiaren udako ikastaroa, Italiako Toskanan kokatzen den San Giusto izeneko abadetzan burutzen da. Inguruan dauden paisai ederrek eta eraikinak berak toki majiko eta apropos bat sortzen dute maskara eta antzerki fisikoaren munduan buru-belarri murgiltzeko. Mundu osotik zehar etorritako 30 ikasle eta 4 irakasle elkartu ginen bertan.

Ikastaroaren programa bi zatitan dago banatuta. Alde batetik maskara eraikitzea eta bestetik interpretazioa. Nik interpretazioaren alderdia aukeratu nuen, Natasharen ikastaroan panpina erainkitzeko aukera izan baitnuen. Interpretazio arloa berriz 3 puntutan zegoen zatituta:

1. Maskara aurretik: Maskara jarri baino lehen garrantzitsua da kontzeptu batzuk aurretik barneratzea. Hala nola, entzumena, fokoa, tentsio mailak, etab.

2. Maskara: Maskara instrumentu konplexu eta sinplea da aldi berean. Maskarak antzerkiaren sustraietara eta bere elementu garrantzitsuenetara garamatza zuzenean: erritmoa - espazioa - mugimendua.

- *Pertsonaia eta eszena*: Hemen, pertsonai baten sorkuntza eta ikerketa praktikoan jartzen da arreta: bere energia eta erritmoa, ibiltzeko eta arnasa hartzeko era, ezaugarri nagusien bilaketa, etab. Pertsonaia aurkitzeak, gaiak eta eszenak topatzea ahalbidetzen du.



MASKARA TEKNIKA

- *Maskara eta erritmoa*: Erritmoa, arnasa eta emozioa maskararen oinarritzko elementuak dira, eta horiek era zuzenago eta intentsoago batean bizi daitezke musikaren interakzioaren bidez. Pertsonaiaren ezaugarriak bilatuko dira musika eta inprobisazioen bidez.
- *Antzezlanaren garapena*: Nola sortu dezaket materiala inprobisaketak erabiliz? Nola aurkitu dezaket nire istorioaren gaia? Nola eraikitzen da eszena bat? Ez dago eszenak edo antzezlanak garatzeko errezetarik. Talde lanean erronkak sortzen dira prozesu osoan zehar. Ariketa praktikoak eginez eta batez ere irudimena landuz, eszenak edo istorio laburrak sortuko dira.

3. Mugimendua

- Beroketa ariketak.
- Gorputz adierazpena.
- Alexander Teknika.
- Maskara neutroa: Erritmoa, tentsioa, espazioa eta irudimena parametro erabakigarriak dira antzele bakoitzarentzat. Maskara neutroa tresna oso erabilgarria eta hezigarria da gorputza entrenatu, trebatzeko.



DANTZA ETA MUGIMENDU KLASEA

4. IKERLANA

HAUSNARKETAK

Ibilaldi osoan zehar aukera izan dugu hamaika gaietara buruz hitz egin eta hausnartzeko. Oso aberasgarria izan da bai beste partaideekin eta bai jaialdi eta ikastaroetan zehar ezagutu dudan jendearekin haur eta gazteentzat zuzenduta dagoen antzerkiaren egoerataz hitz egitea.

Jakina da antzerkiaren onuragarritasuna haur eta gazteengan. Dibertigarria eta polita izateaz gain jakintza iturri bat ere bada, antzezpenen bidez ezagutzak eta baloreak transmititzen baitira. Hare gehiago antzerkia egiten bada, hau da, antzezten bada, etorkizunerako oso baliagarriak izango diren kontzeptuak bereganatzen baitituzte. Izan ere, antzerkiaren bidez, ikertzeko, komunikatzeko, konfidantza izan eta beldurrak gainditzeko, sormena garatzeko, taldean lan egin eta helburu bat lortzeko tresnak lortuko dituzte. Arrazoi hauengatik ikusten dut guztiz beharrazkoa dela, bai eskoletan antzerkiaren irakasgaia egotea, bai antzokietan kalitatezko programazioa egotea.

Baina, zerk egiten du antzezlan bat kalitatezkoa izatea? Eta hare gehiago, zergaitik antzezlan batzuk gustatzen zaizkigu eta beste batzuk ez? Hau izan da gure hausnarketaren puntutetako bat. Zaila da erantzuna aurkitzea, subjektiboegia izango izango litzatekelako. Baina gauza bat argi daukat: gehien hunkitu, barrearazi, ondo pasarazi eta gustatu zaizkidan antzezlanak eragin berbera zuten haurretan zein helduetan. Beraz, nik antzerki familiarragatik egingo nuke apostu. Orokorrean haurrak gurasoekin joaten dira antzerkira eta oso aukera ona da denbora familian pasatzeko eta kultura hurrengan sustatzeko.

Beste alde batetik, oso hutsune handia ikusten dut gazteentzat zuzenduta dagoen programazioan. Normalean 4-13 urte bitarteko ikusleentzat sortzen dira. Baina, nahiz eta batzuk egon, zaila da nerabeentzat zuzendutako antzezlanak aurkitzea. Beraien arazo eta kezketaz, amets eta ideietaz hitz egiten dituzten emanaldiak. Poza eman dit jaialdietan hutsune hau txikiagoa dela ikustea, baina hala ere, lan handia dago oraindik egiteko.

Hauek izan dira gehien inspiratu nauten antzezlanak eta arrazoiak:

- **“ Estrella” (Marie de Jhong) / “Solitudes” (Kulunka):** Maskara antzerkia egiten dute bi antzerki talde hauek. Istorio zoragarri zein gogorak kontatzen dizkigute bi antzezlanek. Humorea eta musika bitartekari, eta hitz bakar bat esan gabe, publikoa guztiz emozionatu zuten.
- **Myriads of Worlds (The Swedish Royal Opera):** Dantza garaikidea eta operaz nahasturiko antzerki sensoriala 3-18 hilabete bitarteko haurrentzat. Lehenengo aldia da hain txikiak diren haurrentzat zuzenduta dagoen antzezlan bat ikusten dudana eta oso momentu majikoa sortu zen. Eszenografia eta jantziak zoragarriak ziren, eta haurrak guztiz txundituta gelditu ziren.
- **“ Pileta Remix” (Le Collectif Wow):** Erdi irratsaio, erdi antzerki... ikusi dudana proposamen originaletako bat.
- **“Vilain” (Théâtre à cru):** Antzerkia, musika zuzenean, margolanak, proiektzioak, animazioa... disziplina anitzeko antzezlan bikaina.



“MYRIADS OF WORLDS”

ZERGAIK IBILBIDE HAU?

Kimuko deialdian aurkeztu nintzenean argi nuen zein izango zen nire ibilbidea. Nahiz eta gehienetan egin dudan antzerkia testua izan, aberasgarria iruditzen zitzaidan gauza ezberdinak ikastea. Txotxongilo eta maskararen mundua liluragarri eta majikoa iruditu zait betidanik. Beraien bitartez ideiak, emozioak, eguneroko gertaerak zein istorio harrigarriak adierazi daitezkelako. Antzezle bezela objektu bati edo maskara bati “bizia” ematea oso interesgarria eta zaila iruditzen zait, zeren ikusle bezela askotan galdetu izan diot neure buruari: ¿Nola egingo dute larruzko maskara batekin emozioak transmititzeko? ¿Nola sortu daiteke egunero erabili dezakegun objektu batekin txotxongilo edo pertsonai bat?

Bestalde, oso polita iruditzen zait teknika hauekin sortzen den lengoai unibertsala. Munduko edozein pertsonak uler, disfrutatu eta partekatu dezakeen zerbait.

PROIEKTUA

Lehen aipatu dudan bezela, gure proiektua 2017. urtean hasi genuela esan genezake. Barbarak eta biok argi genuen elkarrekin proiektu bat sortu nahi genuela eta hau, haur eta gazteentzat zuzenduta egongo zela.

2018-ko Kimuko partaide izan zenean, gertutik jarraitu nuen bere ibilbidea. Natasha Belovari buruz hitz egin zidan, eta segituan hasi ginen bere lanari buruz ikertzen. Bere lan egiteko era eta txotxongiloen estetika oso interesgarria eta berritzailea zela iruditu zitzaigun. Horregatik Natasharen “Création de marionnettes portées” ikastaroa izan zen Barabareren ibilaldiaren geltokietako bat.

Hilabete batzuk geroago, Madrilgo Kamikaze antzokian, Voilá Producciones antzerki taldeak emandako “Manipulación de marionetas” ikastaroa egin genuen elkarrekin. Bertan txotxongiloei “bizia” emateko teknika ikasi genuen. Ikastaro hau inspirazio iturri bat izan zen guretzat eta txotxongiloen ideiarekin aurrera jarraitzea erabaki genuen. Horrela, Kimu proiektuaren ibilbidea hasi nuenean, nik ere Natasharen ikastaroa egingo nuela erabaki genuen, gure sorkuntzarako beste pertsonai bat sortzeko.

Bigarren pertsonai hau, Barbarak sortutako txotxongiloarekin zerikusia izan behar zuen nolabait. Eta horretarako gai bat behar genuela konturatu ginen. Atera ziren gai guztietatik, bi hauek izan ziren atentzioa gehien deitu zigutenak:

- Emozioen kudeaketa.
- Familiako partaide baten galera.

Horregatik, Barbararen txotxongiloa gaztea zela kontuan hartuta, Amama-ren pertsonaia sortzea erabaki genuen. Alde batetik, interesgarria iruditzen zitzaigulako antzezterako orduan adin desberdinetako pertsonaiak sortzea eta bestetik, gure istorioa sortzeko zentzua zuelako.



“AMAMA”

Honetaz gain, disziplina desberdinen erabilera interesatzen zaigu:

- Musika: Antzezlanak musika izatea funtsezkoa iruditzen zaigu. Horregatik musika eta soinua espazio gure sortuko dugun instrumentu desberdinak erabiliz.

- Proiekzioak eta mapping-a. Hainbat antzezlanetan ikusi dugu teknika hauen erabilera eta oso interesgarria iruditzen zaigu. Proiekzioek sortzen duten mundu majikoaren erabilera, pertsonaien eta espazioaren arteko harremana, pertsonai “errealen” eta fikziozko pertsonaien arteko harremanak, etab.

Bukatzeko, erabilera desberdinak dituzten jantzi zen objektuak erabili nahi ditugu. Espazio desberdinak sortzen dituzten eszenografia simple baina eraginkorrak.

Oraindik lan asko geratzen zaigu aurretik baina Kimu deialdia habiapuntu zoragarria izan da guretzat eta asko lagundu digu gure sorkutzaren oinarriak finkatzeko.

Eskerrik asko!